

**EZKERRALDEA.** 48 lanpostu sortu ditue egitasmoaren lehen atalean

## Hamalau enpresa eratu ditue Emankorren bidez

Sustapen Sailak, Gazte Lanbidean fundazioak eta Cedemik osatu dabe programea

Erredakzioa

Hamalau enpresa eta 48 lanpostu sortu ditue Emankor programearen bidez Foru Aldundiko Sustapen Sailak, BBK-ko Gazte Lanbidean fundazioak eta Cedemik, Ezkerraldean. Atzo jakin eragin zituen Emankorren lehen ataleko emoitzak, Sustapen diputau Tontxu Camposek eta Cedemiko zuzendari kudeatzaile Javier Maquedak.

Emakorren helburuak dira Ezkerraldeko gazteen artean ekiteko kultura sustatu, gazteak lan munduan integretan lagundu, enpresa txiki eta ertainetan teknologia barriak barnerratu eta enplegua sortu. Hori holan, enpresa barriak eratu eta gazteendako lanpostuak sortzeko, egitasmo bi garatu ditue.

Emakorreko arduradunek azaldu ebenez, 53 enpresa proiektu jaso ditue. Horreetatik 14 enpresa eratu ditue, eta ondorioz, 48 lanpostu. Danetara, 1.416.848 euro inbertidu ditue. Enpresa barri horreek Sustapen Sailak eta Gazte Lanbidean fundazioak emoten dituen diru laguntzak jaso ditue. Eta barri-tzaile lez aintzat hartzen dituen



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

Emankor programearen arduradunak pozik agertu ziran emoitzeekin.

enpresek, ganera, aukerea daukie Ilgner eraikinean, enpresa inkubagailuan, egoitzea eukiteko hiru urtez. Camposen eritxiz, Ezkerraldea berreskuratzeko ezinbestekoak dira era horretako politika aktiboak.

### Aldizkako praktikak egitasmoa

Ezkerraldeko gazteak lan munduan sartzeko, aldizkako praktikak jaso ditue Emankor programearen barruan. Gazteak sei hile emoten ditue eskualdeko enpresetan beharrez. Gazte Lanbidean fundazioak page-

tan deutse praktikak egiteagaitik. 153 gaztek egin ditue praktikak 134 enpresetan, urte bi honetan. Bekadunen %50 lizentziatuak dira. Eta ganerakoek diplomaturea eta lanbide heziketako ikasketak ditue. Emakorreko arduradunek nabarmendu eben bekadunen %60ek lana aurkitu ebela, praktika aldia amaitu eta sei hile igaro baino lehen. Praktikekin batera, 40 orduko trebakuntza egitasmoa garatu dau Emankorrek. «Gazteen jakituria handitu eta praktikak osotzeko».

**HEZKUNTZEA.** Epaltzaren alargunaren beka lortu daben ikasleak be bai

## Erretirautako irakasleak omendu ditu Bilboko Udalak



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Joan dan ikasturtean Bilboko Bigarren Hezkuntzako eskola publikoetan erretirautako irakasleak omendu zituan Iñaki Azkuna alkateak, atzo. Eta luzaroan uriko eskoletan egondakoekin batera izan ziran, Epaltzaren alargunaren beka jaso dituen ikasleak. Txistularien artean hartu zituen ikasleak eta erretirautako irakasleak. Gazteen uriko ikasle guztien artean emoitza onenak lortu dituelako. Bekearen bidez, aurrerantzean burutzen dituen ikasketak pagetako diru laguntzea emongo deusie. Erretirautako berba goxoak euki zituan Azkunak, urteetako beharra eskertzeko.

**GARRAIOA.** Autobusak ipiniko ditue asteen

## Bidezabal eta Plentzia arteko metro zerbitzua eten egingo dabe hilaren 6tik 8ra

Erredakzioa

Metro Bilbaok Bidezabal eta Plentzia arteko tren zerbitzua eten egingo dau abenduaren 6, 7 eta 8an, Ormazako estratea zabaltzeko obrak egin behar dituelako. Baina garraio zerbitzu horren orde, ordutegi berberagaz, autobusak ipiniko ditue. Eguen gauean, 22:00etan, hasiko dira autobusak martxan: egunez, 20 minuturo, eta gauez, 30 minuturo. Autobusen geltokiak tren geltokien ondoan egongo dira, Sopolakoa izan ezik. Hori

errepidean bertan egongo da, Urbasa tabernearen alboan.

Jaiegunak diralako aukeratu ditue hiru egun horreek metroko ibilbidean beharrak egiteko. Izan be, metroko arduradunen arabera, jaiegunetan ibiltzen da bidaiaririk giteko. Dana dala, Bidezabal eta Plentzia arteko bost geltokietan ipini ditue zerbitzu aldaketaren barri emoteko informazio orriak. Berangan, Larrabasterran, Sospelan, Urdulizen eta Plentzian.

### LAGURREAN

BASAURI

### Nagusientzako egoitzea egiteko akordioa sinatu dabe alkateak eta Gizartekintza Saileko diputauak

Basaurin nagusientzako egoitzea egiteko akordioa sinatu eben atzo Ricardo Ansotegi Gizartekintza Saileko diputauak eta Rafa Ibarquen Basauriko alkateak. 170 lagunentzako lekua izango dau egoitzeak, eta horreetatik 50 eguneko zentrorako izango dira. Akordioaren arabera, Udalak lurra ipiniko dau eta Aldundiak egoitzea eregiteko dirua ipiniko dau. Egoitzea eregiteko, 30en bat hilabete behar izango dituela azpimarratu eben. 9,5 milioi euro inguru inbertiduko ditue, eta 85 bat beharginentzako beharra sortuko dabe. Aldundiaren azpiegitura planen barruan egingo dabe Basauriko egoitzea. Plan horren barruan 15 egoitza eta 18 eguneko zentro egingo ditue.

BILBO

### Amaitu ditue Aita Donostia plazea urbanizetako obrak

Amaitu ditue Basurtoko Aita Donostia plazea urbanizetako obrak. Oinezkoentzako egokiagoa da, eta elbarrientzat, be bai; izan be, kendu egin ditue oztopo arkitektonikoak. Tellagorri, Autonomia eta Montebideo etorbidearen artean dago Aita Donostia plazea. Lehen plaza erdian egoan iturria, orain plazearen sarreran ipini dabe. Egurrezko bankuak, paper-ontziak eta argiak be ipini ditue.

ZALLA

### Handitu egingo dabe udal kiroldegia paddel pistea egiteko, eta 2003an hasiko dira obrak egiten

Handitu egin behar dabe Zallako udal kiroldegia, paddel pistea egiteko. Eta horretarako, 78.861 euro inbertiduko dituela nabarmendu dabe Udaleko arduradunek. Datorren urtean hasiko dira obrak egiten, eta bost bat hilabetean egingo ditue. Obrak zein enpresak egin erabagiteko lehiaketea zabalik dago, eta aurtongo urtea amaitu orduko erabagiteko dabe seguruenik. Zallako Udala kirol eskaintza zabaldu guran dabil; eta apirilean, esate baterako, Landaberrin bedar artifizialagaz egindako futbol aretoa inauguratu eben.

BILBO

### Tranbiaren erakusketea 9.000 lagunek ikusi dabe lehen egunean

9.000 lagunek baino gehiagok ikusi dabe tranbiaren ganeko erakusketea lehenengo egunean. Bilbon, Areatza plazan ipinitako karpan dago erakusketea eta abenduaren 18ra arte egingo da bertan. Tranbiaren ezaugarrien ganeko informazioa dago bertan. Horretarako pantaila bi be badagoz. 300 metro koa drokoa da karpea, eta Jaur-laritzako Garraio eta Herri Lan Sailak gertau dau.